

## SO-SUB

**soft-sculpture** (eskultura biguna): Claes Oldenburg iparramerikarrak, pop eta *happening*-eko artistak, *Soft-sculpture* kontzeptu honekin izendatzen ditu bere objektu bigun superdimentsionalak; lonarekin eginda egoten dira, eta efikazia zirrikagarri eta akuilagarri bat eransteko asmoarekin egiten ditu. Hark egindako lababo, idazteko makina eta etengailu bigun horiek benetako merkatal artikulu hauen determinismo utilitarioaren parodia ironikoa izan nahi dute. Objektu hauek galdu egiten dute beren funtzionalitatea eta, jatorrizkoen antzeko itxura izaten duten arren, beste izaera utilitario berri bat hartzen dute objektu akuilagarri gisa, hain zuzen beren eraikuntzan erabili diren material desberdinengatik eta beren tamaina superdimentsionatuengatik; ikuslea material bigun hori eskuetan erabiltzera bultzatzen dute, kontsumo artistikoaren bestelako era prozesual berri bat ezarri, zuzenekoa eta bitala.

**Spurensicherung:** Hirurogeiko urteen hasieran sortu eta arte plastikoetan izan den joera bat da, erreperitorioaren aldetik hainbat gai erabiltzen ditu: arkeologiakoak (Anne eta Patrick Poirier), kultura exotikoetako etnologiaren kontzeptuak (Claudio Costa), XIX. mendeko arkeologi kontzeptuak (Jürgen Brodwolf), bakoitzaren eskualdeko historia murrizta (Nikolaus Lang) eta bakoitzaren iraganeko oroitzapeneko gaiak (Christian Boltanski). *Spurensicherung* deiturak aztarna-bilketa esan nahi du, oso argi definitzekoa ez den iraganeko errealtate bat berreraikitzen laguntzen duten aztarnak. Arkeologia zientifikoa ez bezala, jarduera biltzaile indibiduala nabarmenarazi nahi da hemen, prozesu historikoen psikoanalisi baten zentzuan hartuta. Prozedura artistikoak aztarna arkeologikoak bildu, berregin, dokumentatu, fotografiatu eta erreproduzitu egiten ditu aurreko prezedente indibidual honen bitartez pertsona hartzailea gero, bere aldetik, bilaketa sortzaile bat egitera anima dadin.

**Stempelzeichnungen** (inprimategiko tipoekin egindako marrazkiak): Schwitters-ek testu-irudi mota berezi bat garatu zuen inprimategiko tipoekin osatutako marraz-

kiekin egindako collage moduan; bata bestearen kontra konposizio-kaxako elementu abstraktuak jartzen ditu irudi linealak lortu arte. Irudi horien artean paper-puska kolatuak tartekatzen dira, beren izaera figuratiboarekin elementu idiomatiko seriatuen egitura abstraktua erritmoaren aldetik lasaitarazi egiten dutenak.

**Stilj, De:** 1917. urtean sortu zuen Van Doesburg-ek Holandan —J.J.P. Oud arkitektoarekin eta Piet Mondrian pintorearekin batera— *De Stilj* aldizkaria, izen bereko mugimenduaren bozeramale izango zena eta arte-mugimendu abstraktu eta funtzional zorrotz baten printzipioak azaltzeko erabiltzen zena. Mugimendu honen oinarri teoriakoa Mondrianek asmatu zuen funtsean, berak izan ere, Malevich-ek bere suprematismoaren teoria egiten zuen aldi berean, landu baitzuen forma geometriko garbien sistema bat, gero, neoplastizismoarekin, arkitekturara eta diseinura ere eraldatu izan zena. Lerroak horizontaletara eta bertikale-tara murrizten dituen proportzio elementalen sinpletasun geometrikoa eta kolore primarioak —gorria, horia, urdina— eta ez-koloreak —zuria, beltza eta grisa— erabiliz, Mondrianek artearen ordenazio autonomo bat lortu nahi zuen “erregulartasun, konstruktibotasun eta funtzionaltasunaren pertzepzio nahastezina eramango gaitue-na”, norberaren arbitrioak kanpoan utziz. Mondrianen printzipio estetiko hau azkar bihurtu zen funtsezko maximo nagusi artista belgiar eta holandes talde batentzat; talde horretakoen artean aurkitzen ziren beste pintore batzuekin batera, Piet Mondrian, Theo van Doesburg, Bart van der Leek eta Vilmos Huszar, Vantongerloo eskultorea, J.J.P. Oud eta Wils arkitektoak eta, aurrerago, baita G.T. Rietveld eta Van't Hoff ere beste batzuen artean. Mondrianek kubismoaren jarraipen logiko bezala ulertzen zuen bere abstrakzio funtzional hutsaren teoria, kubismoa, bere ustez, zabaldu egiten behar omen baitzen bizitzako arlo guztietako printzipio estruktural izateraino. Neoplastizismoa bizitzaren konfigurazio funtzionalera aplikatzeko eginkizun hau arkitektura eta diseinu egoki baten bidez egin behar zen nagusiki. Teoria neoplastizistak eraikuntzaren alderdirik

funtsezkoenetan erabilitako praxiak, halabaina, biraketa bat ekarri zuen Mondrianen arabera ulertutako funtzionalismo-kontzeptuaren interpretazioan; funtzionalismo hori berrito formulatu baitzuen Van Doesburg-ek “elementarismo organikoa” leloa erabiliz. Horren arabera, eraikuntza arkitektonikoa modu berritzailean egin behar omen da, arkitekturaren elementu konfigurazialeetan oinarrituz, hau da, “funtzio, bolumen, azalera, denbora, espazio, argi, kolore eta materialetan” oinarrituz, modu horretara “ingurunearen eta zertarakoaren baldintzetara doitutako eraikuntza-prozedura arrazionaleko datuen arabera egindako egokimendu organikoa aska zedin Mondrianen dogmatismo formal zorrotzetik”. “Elementarismoak espresio oro besarkatzen du bere formarik elemental, funtsezkoenean... eta manifestazio bital ororen dispozizio huts eta elementalaren aldeko deklaratzeko da”. Hala, ordena harmonikoa eta plangintza arrazionala etorri ziren *De Stilj*-en arkitekturaren eta diseinua-ren gidalerro izatera, eta nazioarteko mailako ospea iritsi zuen batez ere Oud eta Rietveld-ekin.

**Sturm, Der:** 1910ean argitaratu zuen Herwarth Walden-ek arte-aldizkari alemaniar bat izenburu honekin, eta bi urte geroago arte-galeria bat ere ireki zuen “*Der Sturm*” izenarekin. Bai galeria eta bai aldizkaria abangoardia alemaniarren bozeramaile kolektiborik garrantzitsuen izatera etorri ziren azkar asko. Kandinsky eta Marc bezalako artistek parte hartu zuten aldizkariaren idazketa-lanetan, eta 1910ean jadanik Kokoschkaren lehen erretratuak argitaratu zituen eta *Die Brücke* eta *Der Blaue Reiter*-eko erreproduzio grafiko asko sartu zituen. Manifestu futuristak eta Delaunay-ren lan bat ere azaldu ziren, beraz argitalpen honek informazio zabala ematen zuen garaiko arte-mundu nazioartekoari buruz. Hilero azaltzen ziren *Der Blaue Reiter* taldekoen obrak, futurista italianoenak, kubista frantsesenenak, espresionista alemanenak eta Oscar Kokoschkarenak. Erakusketa-jardun honen punturik gaile-nena “*Udazkeneko Lehen Aretoko Alemanak*” izan zen, Waldenek prestatutakoa eta 1913an egin zena nazioarteko partaidetzarekin.

**Subkultura:** Finkatutako formazio kultural-etik kanpora kokatzen diren taldeen, hark tabu ere kontsideratzen dituen taldeen, komunikazio-sistema bat da. Subkultura deitutako horretakoak argitalpen arruntak, komikiak, eta iragarki grafikoak izaten dira, eta garrantzi handikoa izan da —batez ere Ingalaterran— pop art-earen sorrerarako. Subkulturaren egitura tematiko eta formalek eragin handia izan dute beren pop ikonografian kontsumo-produktu arruntekin. ■